

## PRESIDENTEA

Josu Artetxe

## ZINEGOTZIAK

Lauren Uria

Esteban Hernando

Aitziber Alava

Garbiñe Alaña

Julio Etxaurren

Esmeralda Martínez

José Antonio Bartolomé

Iratxe Parro

Iraida Saenz de Lafuente

AIARAKO UDALAK 2014ko IRAILAREN 18an EGINIKO OHIKO BILERAREN AKTA. Arespalditzan, udaletxeko bilkuren aretoan, bi mila eta hamahiruko irailaren hamazortzian, hemeretziak direnean, Udaltzaga Osoa bildu da ohiko bilera egiteko. Josu Artetxe Arana alkate jauna da burua eta albo batean adierazitako zinegotziak bertaratu dira, behar bezala deituta, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 46 b) artikuluan xedaturikoaren arabera. Neuk, Naiara Lazpita Marcos idazkari andreak, lagundu ditut eta ekitaldiaren fede eman dut.

Jarraian, Eguneko Aztergaien Zerrendan dauden gaiak jorratu dira.

## EZ DA BERTARATU

José Luis Pedruzo

## IDAZKARIA

Naiara Lazpita

Alkate jaunak arratsalde on esan eta Udaltzagara ongi etorria eman die guztiei.

Ondoren, Eguneko Aztergaien Zerrendan gaineratutako puntuak jorratu dira.

### **1.- Onestea, bidezkoa bada, Udaltzaga Osoak 2014ko uztailaren 17an eginiko ohiko osoko bilkuraren akta.**

Inork ez du horri buruzko ezer esan eta gaiari buruzko bozketa egin da. Bada, bertaratuek aho batez onetsi dute.

### **2.- Behin betiko onestea 2013ko Kontu orokorra.**

Inork ez du horri buruzko ezer esan eta gaiari buruzko bozketa egin da. Bada, bertaratuek aho batez onetsi dute.

Eta, horri jarraikiz,

Ogasuna eta Kontu bereziak Batzordeak 2013ko Kontu orokorraren aldeko irizpena eman zuen 2014ko uztailaren 14an. Ondoren, jendaurrean ikusgai jarri zen, 2014ko uztailaren 28ko 84 zenbakiko ALHAOn argitaratutako iragarkiaren bidez.

Jendaurrean ikusgai egoteko epea igarota ez da erreklamaziorik aurkeztu eta Udaltzagak, aho batez, hau **EBATZI DU**:

**Lehenengoa.-** Onestea erakunde honen aipatutako Kontu orokorra, 2013 ekitaldiari dagokiona.

**Bigarrena.-** Ondasunen inbentarioa zuzentzea, Tokiko erakundeen ondasunei buruzko araudiaren 31. artikuluan ezarritakoa betetzeko.

- Eguneko aztergaien zerrendako hurrengo puntuekin jarraitu aurretik, alkate jaunak osoko bilkura honetan puntu berri bat premiaz sartzeko bozketa egin du.

### **3.- Hasiera batean onestea, bidezkoa bada, Aiarako Udalaren LZren aldaketa.**

Lehenengo eta behin, premiazkotasunari buruzko bozketa egin da, eta bertaratuek aho batez onetsi dute.

Beraz, gaiari buruz eztabaidatzera eta bozkatzera igaro dira.

Idazkariak azaldu du LZ aldatzeko espedientea izapidetu zenean ez zitzaiola nahitaezko txostena (loteslea ez izan arren) eskatu Hezkuntza Sailburuordetzari, LZ berrian sortutako plaza berriei esleitu beharreko hizkuntza-eskakizunen inguruan.

Hori dela eta, hori eskatu ziguten abuztuan; beraz, txostena eskatu zen. Bada, txosten hori aste honetan jaso da, eta bertan esaten da lanpostu guztiei esleitu behar zaiela hizkuntza-eskakizunen bat. Zehazki, administrari-lanposturako nahiko da 2. hizkuntza-eskakizuna, eta derrigortasun-data ez ezartzeko aukera dago. Halaber, LZ onesten denean hizkuntza-eskakizunaren derrigortasun-data iraungita duten lanpostuetan, data zehatza adierazi behar da.

Aintzat hartuta txostenean adierazitakoa, idazkariak esan du beharrezkoa dela orain dela gutxi onetsitako LZ aldatzea.

Inork ez du horri buruzko ezer esan eta gaiari buruzko bozketa egin da. Bada, hau izan da bozketaren emaitza:

- Aldeko botoak: 8 (4 BILDU, 4 PNV)
- Abstentzioak: 2 (AB)

Eta, horri jarraikiz,

**IKUSI DA.-** 2014ko maiatzaren 12ko ezohiko osoko bilkuran onetsi zen Udaleko Lanpostuen balorazioa eta LZren aldaketa. Horren bidez, lau plaza berri sortu dira.

**IKUSI DA.-** 2014ko ekainaren 30ean argitaratu zen Udalaren Lanpostuen Zerrenda, 2014ko Aurrekontu orokorrarekin batera.

**IKUSI DA.-** 2014ko ekainaren 30ean jaso zen Udalean Eusko Jaurlaritzako Herri-administrazioekiko eta Administrazio-erregistroekiko Harremanen Zuzendaritzaren jakinarazpena. Bertan adierazten da Euskal funtzio publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearekin bat etorritik, LZko plazei hizkuntza-eskakizunak esleitzeko ebazpena eman baino lehen, Hizkuntza-politikako Sailburuordetzaren nahitaezko txosten ez loteslea eskuratu behar izan dela. Kasu honetan, izapidetzean egindako akats bat dela eta, ez da halakorik eskatu.

**IKUSI DA.-** Udal honek derrigor bete beharreko soziolinguistika-indizearekin bat etorritik, lege-betebeharra beteta egongo da, hamahiru lanpostuetatik bostek hizkuntza-eskakizun esleitua badute, derrigortasun-datarekin; beraz, posible da hiru administrari-lanpostuetatik bik derrigortasun-data esleiturik ez izatea.

**IKUSI DA.-** Hizkuntza-politikako Sailburuordetzaren txostenaren arabera, LZ onesten denean derrigortasun-data iraungita duten lanpostuek dagokien data zehatzarekin agertu behar dute.

**AINTZAT HARTU DA.-** Euskal funtzio publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legea eta Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua araupetzen duen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretua.

**AINTZAT HARTU DA.-** Gizarte Ongizatea, Berdintasuna, Immigrazioa eta Funtzio Publikoa eta Langileak Informazio Batzordeak 2014ko irailaren 16an emandako aldeko irizpena.

Udalbatzako gehiengo absolutuak hau **EBATZI DU**:

**Lehenengoa.-** Hasiara batean onestea Aiarako Udalaren Lanpostuen Zerrendaren aldaketa. Zehazki, hau aldatuko da:

- Administrari-lanpostuaren 1. eta 2. dotazioan, 2. hizkuntza-eskakizuna ezarriko da, derrigortasun-datarik gabe.
- Administrari-lanpostuaren eta mantentze-lanen arduradun-lanpostuaren 3. dotazioan, “*LZren onespena*” jasotzen da hizkuntza-eskakizunaren derrigortasun-data gisa. Bada, bertan 2014-06-30 idatzi behar da.

**Bigarrena.-** Espedientea jendaurrean ikusgai jartzea, ALHAOn iragarkia argitaratuta, hamabost eguneko epean dagozkion erreklamazioak aurkez daitezten.

**Hirugarrena.-** Erreklamaziorik ez badago, ebazpen hau behin betikotzat jotzea.

**Laugarrena.-** Behin betiko ebazpena argitaratzea, araudiak ezarritako moduan eta epean.

- Aurrera egin aurretik, alkate jaunak osoko bilkura honetara beste puntu bat premiaz gehitzea proposatu du.

#### **4.- Alkatetzak zuzenean hautatzeko proposamenari buruzko mozioa.**

Lehenengo eta behin, premiazkotasunari buruzko bozketa egin da, eta bertaratuek aho batez onetsi dute.

Ondoren, gaiari buruz eztabaidatzera eta bozkatzera igaro dira. Josu jaunak (BILDU) mozio hau irakurri du:

##### ***"ALKATEEN AUKERAKETA ZUZENERAKO PROPOSAMENAREN AURREAN***

*Herritarrengandik gertuena dauden instituzioak izanik, Udalen jarduera ireki, zabal eta demokratikoan sakontzeak eguneroko ariketa izan beharko luke. Hauteskundeen aurretik, egunean bertan eta ondoren ere, Udalek herritarren borondatearen ispilu izan behar dute. Aldi berean, gainerako interes partidista, ekonomiko eta finantzarioen gainetik, herritarrenganako zerbitzua eta konpromisoa izango dira etengabe udal-politika ezaugarrituko duten adierazleak.*

*Baina gure udalek aurrekinik gabeko erasoak jaso izan dituzte azken urteetan. Europatik proposatu eta Madriletik inposatu dituzten murrizketen gauzapearen bidez, ahalmen politikoak eta ekonomikoak erabat mugatu zaizkie udalei, lehendik larria zen egoera, oraindik ere larriago bilakatu. Madriletik inposatu nahi izan zaizkigun neurri horiek guztiek, udalen autonomia suntsitzeaz gain, udalen eskuetan dauden baliabideak esku pribatuera bideratzeko ate guztiak irekitzen saiatu dira. Eremu publikoa eta herritarra ahulduz eta era berean eremu pribatuan mugitzen diren enpresak indartuz. Azken urteetako udalen jarduera eredia, berez ahula*

*izanik ere, errotik okerrera aldatu nahi izan da Madrilgo Gobernutik.*

*Behin eta berriz, Hego Euskal Herriko instituzio guztiek, udalen autonomia indartzearen beharra eta udalak herritarrengana gerturatzeko neurriak aldarrikatu arren, Madriletik entzungor egin zaigu eta inposizioarekin erantzun zaigu.*

*Azken urte hauetan neurri hauek bultzatu eta udalen eskumen politikoak murriztu dituen PP alderdia alkatearen aukeraketa zuzenerako proposamen batekin datorkigu. Oraindik osotasunean ezagutzen ez bada ere, alkatea zuzenean zerrendarik bozkatueneko zerrendaburu izendatzeko proposamena jarri da mahaiaren gainean. Udal-hauteskundeetarako hilabete gutxi falta diren honetan, nagusiki PPren alderdi-interesei erantzuten dien proposamen baten aurrean gaude. PP, ohikoa duen bezala eta beste behin ere, inoren iritziari kasurik egin gabe (eta bereziki Euskal Herriko udal eta tokiko erakundeetatik egiten diren aldarrikapenei kasurik egin gabe) ari da urratsak ematen. Bere interes politiko alderdikoi eta zentralistak inposatu nahi ditu gure udaletan, herritarren gehiengoaren iritzia alde batera utzita. Alkatetzak eta Udal Gobernuak, herritarren gehiengoaren borondatea ordezkatu behar dute. Alkatearen erreferentzia garrantzitsua da, baina ez eredu presidentzialista baten arduradun gisa, herritarren gehiengoaren ordezkari gisa baizik.*

*Hauteskunde Legearen aldaketa sakon bat behar dela uste dugu. Baina ez alderdi bataren edo bestearen interesak defendatzeko, baizik eta Euskal Herritarrok gure udal eta instituzio egitura nolakoa izan behar duen erabakitzeke aukera izateko. Gure udaletan demokraziari ateak irekitzeko, jarrera presidentzialista eta autoritarioak alde batetara uzteko eta herritarren hitzak udaletan zuzenean indarra izan dezan. PPk aurkeztu duen proposamenaren kontrako norabidean egin behar dira aldaketak.*

*Hau guztia kontuan izanik, AIARA-AYALAKO UDALAK, honako puntu hauek onartzen ditu:*

*1.- Udal honek, Madrilgo Gobernutik PP-k alkatea zuzenean zerrendarik bozkatutako zerrendaburua izendatzeko burutu nahi duen Lege Aldaketaren aurkako jarrera adierazten du. Udal eta herritarren interesen gainetik, PPren alderdi-interesei erantzuten dielako. Norabide horretan, udal honek, interes alderdikoiek sustaturiko Hauteskunde Legearen edozein aldebakarreko aldaketa errefusatzeko du.*

*2.- Udal honek, Euskal Herriko udal eta toki entitateen borondatea errespetatu eta gure egitura instituzionala inposaketa eta murrizketarik gabe, Euskal Herritarren beharren arabera antolatzeke eskubidea aldarrikatu nahi du.*

*3.- Udal honek, bere jardueran herritarren parte-hartzea eta demokrazia zuzenerako tresnak martxan jartzeko konpromisoa hartzen du, udalaren osaketan ez-eziko udaleko erabaki garrantzitsuenen aurrean ere.*

*4.- Udal honek, ebazpen honen berri, herritarrei eta Madrilgo Gobernuari emateko erabakia hartzen du."*

*Garbiñe andreak (EAJ) esan du bere taldeak zuzenketa bat gehitu nahi duela; zehazki, honako puntu hau gehitu nahi du:*

*"Espainiako Gobernuak Hauteskunde-lege orokorra aldatzeari buruz egindako iragarpenaren aurrean, asmo horren berri komunikabideen bidez izan ondoren, Eusko Legebiltzarra erabat aurka agertzen da, ez delako gainerako talde politikoekin hitz egin eta ez delako adostasuna bilatu; ez delako sasoi egokia, udal-, foru- eta autonomia-hauteskundeak hurbil daudelako; eta urratu egiten direlako Euskal Autonomia Erkidegoari emandako eskumenak (Gernikako autonomia-estatutuan ezarrita daude)."*

Josu jaunak (BILDU) esan du ez dagoela arazorik Garbiñe andreak irakurritako testua mozioaren laugarren puntu gisa sartzeko.

Beraz, mozioan laugarren puntu berri hori sartzeari buruzko bozketa egin da, eta oraingo laugarren puntua bosgarren puntua izango da.

Hori dela eta, Iratxe andreak (AB) adierazi du bere taldea abstenitu egingo dela. Izan ere, proposamenarekin ados dauden arren, eurek 2011ko maiatzeko hauteskundeetan ikusi zutena ez da mozio honetan aldarrikatzen dena.

Inork ez du horri buruzko ezer esan eta gaiari buruzko bozketa egin da. Bada, hau izan da bozketaren emaitza:

Aldeko botoak: 8 (4 BILDU - 4 PNV)

Abstentzioak: 2 (AB)

#### **5.- Alkatetzaren Dekretuak:**

- **Erref.- 288/14.- Naturgas Energía Comercializadora, SAU.-** Lurzorua okupatzeagatiko tasaren likidazioa. Kontzeptua: gasa (2014ko bigarren hiruhilekoa).
- **Erref.- 289/14.- Naturgas Energía Comercializadora, SAU.-** Lurzorua okupatzeagatiko tasaren likidazioa. Kontzeptua: argindarra (2014ko bigarren hiruhilekoa).
- **Erref.- 290/14.- OSM.-** Lizentziarik gabe egindako egitura eraisteko agintzea, eta obrarako udal-lizentzia ematea, Izorian erabilera pribatuko hiru txakurtegi eraikitzeke.
- **Erref.- 291/14.- ADSC.-** Obrarako udal-lizentzia ematea, Llantenoko Garabilla auzoan eraikina handitzeko.
- **Erref.- 292/14.- JCOV.-** Ibilgailuen gaineko udal-zerga (2014) ordainduaren ordainagiriaren zati proportzionala itzultzea, turismoari behin betiko baja eman zaiolako.
- **Erref.- 293/14.- CRO.-** Ibilgailuen gaineko udal-zerga (2014) ordainduaren ordainagiriaren zati proportzionala itzultzea, turismoari behin betiko baja eman zaiolako.
- **Erref.-294/14.- JAV.-** Ibilgailuen gaineko udal-zerga (2014) ordainduaren ordainagiriaren zati proportzionala itzultzea, turismoari behin betiko baja eman zaiolako.
- **Erref.- 295/14.- MAGA.-** Ibilgailuen gaineko udal-zerga (2014) ordainduaren ordainagiriaren zati proportzionala itzultzea, tarifak ezartzean akatsa egin delako.
- **Erref.- 296/14.- MPAG.-** Obrarako udal-lizentziaren espedienteari buruzko agiri gehiago eskatzea.
- **Erref.- 297/14.- KISM.-** Obrarako udal-lizentziaren espedienteari buruzko agiri gehiago eskatzea.
- **Erref.- 298/14.- MICDLT.-** Obrarako udal-lizentziaren espedienteari buruzko agiri gehiago eskatzea.
- **Erref.- 299/14.- Menagarai-Beotegiko Administrazio Batza.-** Luzapena ematea, Menagaraiko lursail bat betetzeko obrak amaitzeko.

- **Erref.- 300/14.- Menoioko Administrazio Batza.-** Obrarako udal-lizentzia ematea, Menoioko zenbait bidetako zuloak betetzeko.
- **Erref.- 301/14.- Menoioko Administrazio Batza.-** Obrarako udal-lizentzia ematea, Menoioko Etxaurren baselizako sarbidea konpontzeko.
- **Erref.- 302/14.-** MA M. O. jaunari esleitzea Etxaurren ikastolako patioan arrapala eraiki eta arrapalaren zoladura ordezkatzeko lanak.
- **Erref.- 303/14.-** A U. A. jaunari esleitzea Etxaurren ikastolako jolastokiko alboa ixteko eta ikasgelako argiteria hobetzeko lanak.
- **Erref.- 304/14.-** Onestea kulturari eta kirolari buruzko ikastaroen eta tailer artistikoen zerbitzua kontratatuzko pleguak.
- **Erref.- 305/14.-** Onestea “Euskal Jolas Txokoak” kudeatzeko eta emateko zerbitzua kontratatuzko pleguak.
- **Erref.- 306/14.- JALL.-** Obrarako lizentzia-espeditari buruzko agiri gehiago aurkezteko eskatzea.
- **Erref.- 307/14.- Alkatearen 7/2014 Espedientea, kreditu gehigarriari buruzkoa.**
- **Erref.- 308/14.- Ozekako Administrazio Batza.-** Obrarako udal-lizentzia ematea, Ozekan saneamendu-sarearen zati bat konpontzeko.
- **Erref.- 309/14.- Alkatetzaren eskumenak eskuordetzea.**
- **Erref.- 310/14.- MLVL.-** Udal-lizentzia ematea, Arespalditzako lursail batean negutegi bat instalatzeko.
- **Erref.- 311/14.- MLVL.-** Obrarako udal-lizentzia ematea, Arespalditzako etxebizitza baten atzealdeko sarbidea konpontzeko.
- **Erref.- 312/14.- Arritek Ingenieria, SL.-** Obrarako udal-lizentzia, Maroñoko etxola baten solairuarterko taulak ordezkatzeko.
- **Erref.- 313/14.- Aguiñigako Administrazio Batza.-** Obrarako udal-lizentzia ematea, ezpondako lurrak kendu eta biribiltzeko, Aguiñigako Administrazio Batzaren titulartasuna duen bidean.
- **Erref.- 314/14.- Istel Radiobide, SL.-** Onestea “Telekomunikazioen lotura-sistema instalatzea” jarduera Izoria herriko 5. poligonoko 289. lursailean. Halaber, amaitutzat ematea horretarako izapidetutako espedientea.
- **Erref.- 315/14.- Menagarai-Beotegiko Administrazio Batza.-** Ur-sareak berritzeko obrarako lizentzia-espeditari buruzko agiri gehiago eskatzea.
- **Erref.- 316/14.- Onestea F/2014/7 zenbakiko fakturen kontabilitate-zerrenda.**
- **Erref.- 317.- SSG.-** Fidantza eskatzea, Zuazan familia bakarreko etxebizitzaren eranskina zaharberitzeko obren hondakinak egoki kudeatzen direla bermatzeko.
- **Erref.- 318/14.- MAB.-** Obrarako udal-lizentzia ematea, Zuazako etxebizitza baten teilatu-hodia aldatzeko eta fatxada konpontzeko.
- **Erref.- 319/14.- SSG.-** Obrarako udal-lizentzia ematea, Zuazako etxebizitza baten eranskina zaharberitzeko.
- **Erref.- 320/14.- MICDLT.-** Fidantza eskatzea, Beotegin familia bakarreko etxebizitza bat eraikitzeko obren hondakinak egoki kudeatzen direla bermatzeko.
- **Erref.- 321/14.- MICDLT.-** Obrarako udal-lizentzia ematea, Beotegin familia bakarreko etxebizitza eraikitzeko.
- **Erref.- 322/14.- Menagarai-Beotegiko Administrazio Batza.-** Udal-lizentzia ematea, finkak banatzeko eta batzeko.
- **Erref.- 323/14.- Etorki Kooperatiba Elkarte.-** Gaitzestea 4. poligonoko 723 lursailean egurra biltegitratzeko eskatutako baimena.
- **Erref.- 324/14.- Murgako Administrazio Batza.-** Obrarako udal-lizentzia ematea, Murga udalerriko La Iglesia eta San Martín bideak zati batean konpontzeko.

- **Erref.- 325/14.- Zuazako Administrazio Batza.-** Obrarako udal-lizentzia ematea, Zuaza herriko La Llana eta Zerrabe auzoetako bideak konpontzeko.
- **Erref.-326/14.- EZU.-** Ematea arriskutsuak izan daitezkeen animaliak edukitzeko lizentzia.
- **Erref.- 327/14.- Onestea Aiarako Udaleko zerbitzuetako administrazio-laguntzaileen eta beharginen lanpostuak sortzeko hautatze-proben oinarriak eta deialdia.**
- **Erref.- 328/14.- Aldatzea Aiarako ehiza-barrutia esleitzeko baldintza ekonomiko-administratiboen eta tekniko-zinegetikoen pleguak.**
- **Erref.- 329/14.-FAO.-** Agintzea putzua eraikitzeke obrak gelditzeko eta abiaraztea eraldatutako hirigintza-ordena berrezartzeko espedientea.
- **Erref.-330/14.- EZU.-** Txakurraren izena ematea arriskutsuak izan daitezkeen Txakurren Erregistroan.
- **Erref.- 331/14.- Aiarako administrazio-batzei diru-laguntza ematea, 2014ko herriko jaietako gastuak ordaintzeko.**
- **Erref.- 332/14 - 342/14.- Diru-laguntzak ematea, adingabeen musika- eta dantza-jardueretarako (2014. urtea).**
- **Erref.- 343/14.- IGG.- Diru-laguntzarik ez ematea adingabeen musika- eta dantza-jardueretarako (2014. urtea).**
- **Erref.- 344.- Llanteno Administrazio Batza.-** Diru-laguntza ematea, ura hartzeko sarea ordezkatzeko exekuzio-obraren proiektua idazteagatiko ordainketen gastuak ordaintzeko.
- **Erref.- 345.- Zuazako Administrazio Batza.-** Diru-laguntza ematea, argiteria publikoa hedatzeko obraren memoria idazteagatiko eta zuzentzeagatiko ordainketen gastuak ordaintzeko.
- **Erref.- 346.- Menoioko Administrazio Batza.-** Diru-laguntza ematea, Casa Concejo eraikinaren fatxada konpontzeko obraren aldamiocoi, segurtasunari eta osasunari buruzko txostena igortzeagatiko ordainketen gastuak ordaintzeko.
- **Erref.- 347.- Luiaondoko Administrazio Batza.-** Diru-laguntza ematea, Luiaondoko hilerrian hilobiak eta kolunbarioak eraikitzeke proiektua idazteagatiko ordainketen gastuak ordaintzeko.
- **Erref.- 348.- FAO.-** Indargabetzea putzua eraikitzeke obrak geldiarazteke dekretua eta abiaraztea eraldatutako hirigintza-ordena berrezartzeko espedientea.
- **Erref.- 349.-** Kreditu-gaikuntzari buruzko 3/2014 espedientea.
- **Erref.- 350.-** Alkatearen kreditu-transferentziari buruzko 1/2014 espedientea.
- **Erref.- 351.-** Esleitzea Aiarako ehiza-barrutiaren aprobetxamendu zinegetikoa.
- **Erref.- 352.-** Alkatetzaren eskumenak eskuordetzea, ezkontza zibila egiteko.
- **Erref.- 353.- Retes de Llanteno Administrazio Batza.-** Fidantza eskatzea, Retes de Llanteno herrian kaltetutako putzu septikoa ordezkatu eta berria jartzeko obraren hondakinak egoki kudeatzen direla bermatzeko.
- **Erref.- 354.-** Udal-ibilgailuaren horniduraren kontratu txikia.
- **Erref.- 355.- Zuazako Administrazio Batza.-** Itzultzea Zuazako argiteria publikoaren obraren hondakinak kudeatzeagatiko fidantza.
- **Erref.- 356.- JCG.-** Fidantza eskatzea, Retes de Llanteno etxebizitza baten estalkia eraberritzeko obraren hondakinak egoki kudeatzen direla bermatzeko.
- **Erref.- 357.- SGG eta MAG.-** Obrarako udal-lizentzia ematea, Sojoko lursail batean familia bakarreko etxebizitza bat eraikitzeke.
- **Erref.- 358.- Retes de Llanteno Administrazio Batza.-** Obrarako hirigintza-lizentzia ematea, Retes de Llanteno hondatutako putzu septiko baten ordezkari bat jartzeko.

- **Erref.- 359.- JLM e/r de Maderas Zerrabe, SL.-** Abiaraztea jarduera legeztatzeko administrazio-espeditentea.
- **Erref.-360.- Onestea F/2014/8 zenbakiko fakturen kontabilitate-harremana.**
- **Erref.- 361.- MICA.-** Onartzea Costera herriko 1. poligonoko 957. lursailean “Nekazaritza-tresnen biltegia” jarduera gauzatzea.
- **Erref.- 362.- Larrantza, SC.-** Agiri gehiago eskatzea.
- **Erref.- 363.- AUZ.-** Agiri gehiago eskatzea.
- **Erref.- 364.- FCM.-** Obrarako udal-lizentzia ematea, Kexaako lursail batean familia bakarreko etxebizitza bat eraikitzeko.
- **Erref.-365.- FCB.-** Onartzea Ozeka herriko 6. poligonoko 2.365. lursailean “Nekazaritza-biltegia” jarduera gauzatzea.
- **Erref.- 366.-** Excavaciones Murga Hnos, SLri esleitzea ikastolaren alboko lursaila garbitzeko eta berdintzeko obrak.
- **Erref.- 367.-** A. U. A. jaunari esleitzea udal-igerilekuetako hesiak eraberritzeko eta aldatzeko obren kontratua.

- Garbiñe andreak (EJA) 329/14 eta 348/14 zenbakiko dekretuei buruzko azalpenak eskatu ditu.

Josu jaunak (BILDU) erantzun du gelditzeari buruzko dekretua Etxegoieneko Administrazio Batzak egindako salaketaren ondorioz eman zela. Bertan esaten zen eginbidean zegoen obrak ez zuela betetzen emandako obrarako udal-lizentzian ezarritakoa. Salaketa horri dagokionez, aintzat hartu beharreko bi alderdi zeuden: bat, hirigintzari dagokio; beste bat, Urkidetza Hidrografikoaren eskumenari. Errekara dauden distantziak direla eta, udal-teknikariak egiaztatu zuen Urkidetzaren baimenean ezarritako koordinatuak. Bada, ikusi egin zen obrak ez zuela betetzen; beraz, geldiarazteko dekretu bat eman zen. Hori jakinarazi zitzaion Urkidetza Hidrografikoari eta, biharamunean (ostirala izan zen), aipatutako erakundeko teknikari bat bertaratu zen eta ahoz esan zuen obrak ezarritako koordinatuak betetzen ez zituen arren, ez zegoela arazorik Urkidetzak lanean jarraitzeko. Ikusita obrarekin ez zegoela arazorik, distantzien kontua dela eta, ondorioztatu zen ez zela zentzuzkoa geldiarazpena bere horretan mantentzea; beraz, ostiralaren azken orduan, alkatearen erantzukizunpean, interesdunari obrekin jarraitzeko baimena eman zitzaion.

Josuk hitz egiten jarraitu eta esan du hurrengo astelehenean Urkidetzako teknikariaren nagusia egon zela. Aurretik ere bertaratu zen eta berretsi egin zuen bere lankidearen iritzia; zehazki, esan zuen ez zegoela arazorik obrarekin jarraitzeko. Hori dela eta, hori egiaztatzen duen txosten idatzia heldu zenean, geldiaraztea indargabetzen duen dekretu berri bat eman zen.

Hirigintzaren alderdiari dagokionez, udal-teknikariak ez zuen oztoporik ikusi, obrarekin jarraitu ahal izateko.

Josuk adierazi du asmoa zela geldiarazteak zentzurik ez zuen obra bat ez kaltetzea.

- Iratxe andreak (AB), 331/14 Dekretua dela eta, esan du batzei dekretu hori jakinarazi zaiela. Nola kudeatuko den azaltzeko eskatu du.



Idazkariak azaldu du Dekretuan jaso zela jada ez zela ordainketarik egingo harik eta fakturak aurkeztuta justifikatzen ez den arte.

Iratxe andreak (AB) esan du hori ez zela batzordearen bilkuran adostu. Esna du berak email bat igorri ziola idazkariari, oporretan zegoenean. Bada, abuztuaren 11n etorriko zela adierazi zitzaion, baina irailaren 18a izanda, oraindik ez da ordainketa hori egin.

## 6.- Norberak leharkeena.

- Esmeralda andreak (EAJ) esan du datorren udarako aztertu egin beharko dela igerilekuak ixteko dataren egokitasuna eta haurrak ikastolara hasi arte irekita izateko aukera.

Josu jaunak (BILDU) adierazi du igerilekuen irekitze- eta ixte-datak enpresarekin adostu ohi direla. Ez dago horiek aldatzeko arazorik, baina erabakia klimaren araberrakoa denean, hain aldakorra izanik, ez dago asmatzerik. Ez dago galdeketa bat egiteko arazorik.

- Garbiñe andreak (EAJ) esan du Luiaondoko Árbol Malato ingurua egoera penagarrian dagoela. Ez daki nori dagokion hori mantentzea, Arabako Foru Aldundiari edo Udalari. Esan du monumentu bat ezin dela egoera horretan egon; izan ere, sastrakaz beterik dago eta argia ez dabil.

Josu jaunak (BILDU) esan du galdetu egin beharko dela nork arduratu behar duen zaintzeaz.

- Garbiñe andreak (EAJ) esan du Luiaondoko geltokiaren zubia ere oso egoera tamalgarrian dagoela. Aldundiarekin hitz egin eta garbitu egingo dutela esan dute; baina, komenigarria da Udalak indarra egitea, egiazki Aldundiak egin dezan.
- Garbiñe andreak (EAJ) esan du, Luiaondoko geltokira doan bidea dela eta, ez dakitela Administrazio Batzari edo Udalari dagokion; baina, sastraka garbitu gabe dago.

Josu jaunak (BILD) erantzun du aintzat hartuko dela, eskumena Udalarena bada.

- Garbiñe andreak (EAJ) galdetu egin du ea zer gertatu den 2011n Adifekin hitz egindakoarekin. Maiztasunak areagotzeaz hitz egin zen.

Lauren jaunak (BILDU) esan du batzar hori egin zela Adifekin eta maiztasun batzuk areagotu egin direla.

- Garbiñe andreak galdetu egin du ea noiz sortuko den Herritarren Partaidetza izeneko batzordea. Legegintzaldiaren hasieran, Gobernu Taldeak esan zuen sortu egingo zuela. Halaber, esan zen *Zaraobe* aldizkaria kudeatzeko batzorde bat sortuko zela. Bada, aldizkariari dagokionez, esan du akatsak daudela, alderdi politikoen iritzi edo oharrak daudelako, jaso gabeko albiste baten inguruan.

Josu jaunak erantzun du aldizkaria editatzen den lehenengo aldia dela. Premiaz egin zen, irailean argitaratu nahi zelako, ikastaroena jasotzeko. Akatsak eta hutsegiteak egin dira, baina hurrengo edizioetan konpondu egingo dira.

Garbiñe andreak esan du horiek zenbatzeko, adostutako batzordea eratu behar dela.

Josu jaunak esan du eratu egingo dela.

- Garbiñe andreak esan du kultura- eta kirol-taldeei ez zaiela jakinarazi zer diru-laguntza dagokien 2014rako.

Aitziber andreak (BILDU) erantzun du epea abuztuan amaitu zela eta kultura-teknikariak baja hartua zuela; beraz, oraindik ere ebatzi gabe dago.

- Garbiñe andreak galdetu egin du ea ez ote den pertsona nagusientzako irteera antolatuko. Tradizioz, irailean egiten zen.

Josu jaunak erantzun egin du, egoera ikusita, antolatu egingo dela; baina, gerora.

- Garbiñe andreak esan du Izoriako Administrazio Batzak arazo bat izan zuela argiteria publikoarekin. Udalak erantzun egin behar du ea Batzak bere egindako faktura hori Udalak ordaindu behar duen. Argiteria publikoaren mantentze-lanetan jasotako jarduerak zein diren definitzeko eskatu du. Administrazio-batzek jakin egin behar dute. Halaber, esan du administrazio-batzei erantzun egin behar zaiela, eskaeraren bat idatziz egiten dutenean.

Esteban jaunak (BILDO) erantzun du mantentze-lanen kontratuan ez daudela jasota linea elektrikoak aldatzea dakarten obrak.

Iratxe andreak (AB) esan du kontu bat dela linea aldatzea eta beste bat dela linea hori zenbait arrazoiengatik jaustea eta konpondu behar izatea.

José Antonio jaunak (EAJ) esan du ezinezkoa dela pleguan jasotzea batza guztietako linea elektriko guztietan gerta daitekeenaren kasuistika osoa jasotzea. Mantentze-lanen kontratuan jaso gabeko matxuraren bat gertatzen denean, batzorde batean azter daiteke Udalak bere egin behar duen edo ez.

Esteban jaunak (BILDU) erantzun egin du enpresarekin kontratua sinatu zenean kanpoan utzi zirela meteorologia-baldintza gogorren ondorioz linean egin beharreko konponketa guztiak.

- Garbiñe andreak (EAJ) esan du Murgako Administrazio Batzak idazki bat helarazi zuela, telebista-seinaleari buruz.

Esteban jaunak erantzun du kontu hori konponduta dagoela eta hitz egin dela Murgako errejidorearekin.

- Garbiñe andreak esan du Retes de Llantenoako Administrazio Batzak erabakiaren zain jarraitzen duela. Erabaki egin behar da Arabako Foru Aldundiak hala eskatuta egin beharreko fosako obraren zenbatekoaren % 20 ematen den. Aspaldi eskatu zen, Udalak etxeetako obrarako lizentzien emakidan duen erantzukizuna justifikatuz.

Lauren jaunak (BILDU) erantzun du aurrekontuan partida bat dagoela administrazio-batzen obrak diruz laguntzeko eta irizpideak zehazten aritu direla, diru-laguntza horiek emateko. Alabaina, Gobernu Taldeak ADRko gerentarekin hitz egin nahi du horretaz; izan ere, berak zuzenean ezagutzen du zer-nolako diru-laguntzak eskatzen diren eta zer-nolako diru-laguntzak ematen zaizkien administrazio-batzei.

Josu jaunak (BILDU) esan du Retes de Llantenoko kontua konplexua dela, aspaldi egindako obrak direlako eta teknikoki interpretatu behar delako Udalak erantzukizunik duen ala ez.

Garbiñe andreak (EAJ) esan du Udalak obrarako lizentziak eman zituela eta horren ondorioz Retes de Llantenoko Administrazio Batzak zenbait obra egin behar izan dituela. Bizilagun horiek zenbateko bat ordaindu behar izan dute. Gai hau batzorde baten bilkuran landu behar da.

- Garbiñe andreak esan du mediku-kontsultategiaren inguruan paperontziak jartzeko eskatu dutela.
- Garbiñe andreak eskatu du azaltzeko zergatik ez zen eman batzordearen bilkura batean erabakitakoaren berri, Amurrioko Udalak kiroldegiko kuoten kontuaz eginiko proposamenari dagokionez.

Lauren jaunak (BILDU) aitortu egin du atzerapena egon zela kontu horretan, baina Amurrioko Udalarari baiezko erantzuna eman zitzaion arren, eurek esan zutela ezinezkoa zela gauzatzea, ez zegoelako jasota kiroldegia kudeatzen duen enpresarekin sinatutako kontratuaren pleguan. Hitz egiten jarraitu eta esan du Amurrioko Udalak ez zuela ados jartzeko borondaterik.

- Garbiñe andreak esan du harritzekoa dela Aiarako Udalak urtebete behar izatea Amurrioko Udalarari bere iritzia edo batzordearen ebazpena helarazteko. Garbiñe andreak (EAJ) proposatu du ehiztariak Gorobel mendizerrara sarbidea izateko nahiko izatea Ehiza Elkarteko bazkide-txartela eta nortasun-agiria izatea, identitatea egiaztatzeko.

Lauren jaunak (BILDU) esan du hori batzordearen azken bilkuran ebatzi zela jada.

Iratxe andreak (AB) esan du A.k badakiela horrela izango dela.

- Garbiñe andreak esan du ordenantza bat aurkeztu zela premia handiz, larreak kudeatzeko. EAJk beste ordenantza bat aurkeztu zuen. Bada, jakin nahi du ea zergatik utzi den hori guztia ahaztuta.

Josu jaunak (BILDU) erantzun du azterlan bat abiarazi dela, Salvada Mendizerraren Kudeaketa Integraleko Plan bat egiteko. Antolatu beharreko kontuen artean dago larreen kudeaketa. 2015. urterako neurri batzuk ezartzeko ahalegina egingo da, baina behin betiko eta osorik, gerora aginduko da.

- Garbiñe andreak esan du batzordeak arreko egunean egindako bilkuran esan zela nekazaritzako plastikoak biltzeko sistema arrakastatsua zela; baina, kexa batzuk egin dira. Hortaz, zuhur ibili behar da.
- Garbiñe andreak esan du apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuan esaten dela ikasketak euskaraz egin dituenak ez duela hizkuntza-eskakizunik egiaztatu beharrik. Bada, lan-poltsak sortzeko prozesuan aintzat hartzeko eskatu du.
- José Antonio jaunak (EAJ) esan du Obrak eta Zerbitzuak Batzordearen bilkura batean aztertu dela administrazio-batzorde batek argiteriaren energia-eraginkortasuna hobetzeko inbertsio bat egiten duenean, diru-laguntza horrek dakarren gastua administrazio-batzari helarazteko eskaera, inbertsioa amortizatzeke. Esan du Gobernu Taldeak zerbait aurkeztuko duela horri buruz.

Esteban jaunak (BILDU) erantzun du enpresa batekin aztertu duela sarean hobekuntzak egiteko aukera, ekonomia-eraginkortasuneko irizpideak erabilia; baina, inbertsioen kostua oso handia da.

José Antonio jaunak esan du Arespalditzak orain dela urtebete zehaztu zituela inbertsioa eta inbertsioarekin aurreztuko litzatekeena. Bada, ez denez erantzunik eman, idatziz erantzuteko eskatu du.

Garbiñe andreak esan du batzei gainerako erakundeei ematen zaien tratu bera eman behar zaiela, eta erantzunak idatziz igorri behar zaizkiela.

- Iratxe andreak (AB) esan du arazo bat dagoela institutura doazen gazteekin. Izan ere, taxia beharizanen arabera eskatu ahal izateko, Arabako Foru Aldundiari eskatu behar zaio zerbitzu hori sendotzeko; beraz, Udalak idatziz eskatu beharko luke.

Arazoa da gazte guztiek ezin dutela erabili, taxia beste zerbitzu batzuetarako hitzemanda dagoelako.

- Iratxe andreak esan du ikastaroen izen-ematearen inguruko eskaera gehiago dagoela. Ikastaroak hasi aurretik, jendeak jakin egin behar du antolatuko diren edo ez.

Jorrazteko beste aztergairik ez dagoenez, alkate-udalburuak bilera bukatutzat eman du hogeiak eta hogeia minutu zirenean, eta aztertutako guztia eta hartutako erabakiak jasota gera daitezen, akta hau egin dut eta neuk, idazkariak, egiaztatzen dut, Aiaran, bi mila eta hamalauko irailaren hamazortzian.

OE  
ALKATE-UDALBURUA

IDAZKARIA,

Izpta.: Josu Artetxe Arana

Izpta.: Naiara Lazpita Marcos.